

OIARTZUN / Ordutegi berezia izango du bibliotekak azterketa garaian

Ikasturtero bezala, urte sasoi honetan ikasleentzat garai zailak eta gogorrak inguratzen hasi dira, hainbesteko tensioa sortzen duten azterketak gainean daude eta. Unibertsitateko azterketa garaian, Manuel Lekuona bibliotekak zerbitzu berezia eskainiko die ikasle oiartzuarrei abenduaren 12tik aurrera, non ikasi behintzat aitzaki bezala jar ez dezaten.

Bibliotekako beheko solairuko aretoa ikasleentzako irekita egongo da astelehenetik larunbatera, ordutegi bereziarekin: goizeko 09:00etatik gaueko 22:00etara. Ikasteko orduak izango dituzte, beraz, ikasleek aspertzeko adina.

Erabiltzaileak aretora sartzeko atzeko atea irekita egongo da ordutegi horretan (zementerio zaharraren aldetik) abenduaren 12tik, astelehena, urtarrilaren 30 arte, hau da, unibertsitateko azterketa egutegiaren bukaera arte. Beharrezkoen diren egun horietan alegia.

Eskaerari erantzunez

Ikasle oiartzuarrek aspalditik egiten duten eskaera bati erantzungo dio honela Kultura sailak. Aurreko legegintzaldian, Gobernu taldeak Manuel Lekuona bibliotekako beheko aretoa zerbitzu hau eskaintzeko egokitu zuen, argi bereziak jarritz eta mahaiak eta aulkiak instalatuz. Orain, zerbitzua ireki egingo da.

Lehenengo aldia denez, ordutegi eta baldintza hauetan eskainiko da zerbitzua. Aurrerantzean, beharrak hala eskatzen badu, zerbitzuan aldaketak egongo dira, herriko ikasleei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaini ahal izateko.

Liburutegian ordutegia ez ezik ikasteko baldintzak ere garrantzitsuak direlako, bertara agertzen direnek ixiltasuna gordetzea eskatzen da, benetan eraginkorra izan dadin ikasten pasatako denbora. Bitartekoak jarrita, orain bakoitzaren esfortzua geratzen da.